

BALEIKE



ION BRAKAMONTE

**AMERIKETAN ZEHAR...
MOTXILA BIZKARREAN**



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



BALEIKE 312

2021-IRAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 4 | Hitz tantak Maria Maya Manterola
<i>Garbiñe Arrieta eta Iñaki Oreja</i> | 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Eskolara buelta: hainbat gako</i> |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
<i>Apra</i> | 26 | Plazan Bazan |
| 8 | Hainbat aburu Alfonso Garcia
<i>Energia erosketaren prezioak</i> | 29 | Zientzia eta ingurumena
<i>Gorka Zabaleta</i>
<i>Kobazuloak</i> |
| 9 | Errematea Miren Osa Galdona
<i>Erakusleioa</i> | 35 | Orduan bai Imanol Azkue Ibarbia
<i>Euskal festak</i> |
| 11 | Elkarrizketa Dorleta Agiriano Lai
<i>Ion Brakamonte</i> | 42 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Gasolindegiko kronikak</i> |
| 16 | Erreportajea Jabi Gonzalez Toston
<i>Denboraldi berria</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Ofizioak</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Zer ote da ama ona izatea?</i> |
| 24 | Bazkide kluba | 45 | Nire txanda Eire Salegi
<i>Tabernak 5:00ak arte irekita</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Bizarra</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Imanol Azkue
Dorleta Agiriano Lai

Jabi Gonzalez Toston

Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpuru
publizitatea@baleike.eus
Administrazio
arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Garbiñe Arrieta eta Iñaki Oreja

TESTUA ETA ARGAZKIA: MARIA MAYA MANTEROLA

Garbiñe Arrieta eta Iñaki Oreja margolari zumaiarrek IGart Studio arte estudioa zabaldu zuten martxoaren amaieran Sanjuaniturri pareko sorazutarren lokalean. Lokalaren nondik norakoez eta eskuartearen dituzten proiektuez aritu dira *Baleikerekin*.

Nola ezagutu zenuten elkar?

G.A.: Forondara joaten ginen pintura tailerrera. COVID-19aren eraginez, ordea, saioetako ordutegiak aldatu zituzten, eta nik ezin izan nuen jarraitu tailerrera joaten. Ezagutzen ginen, eta lokala hartzearena planteatu genuen. Alde Zaharrean begiratzeko hasi, eta haxe topatu genuen.

I.O.: Ni 2019an hasi nintzen, ea honezkero 130 koadro izango ditut. Ander Hormazurirekin hasi nintzen, eta etxean margotzen jarraitu nuen. Ez zitzaizkidan etxean koadroak sartzen, eta orduan hitz egin nuen Garbiñerekin.

Bilduma handia pilatu duzue azken urteotan. Salgai daude?

G.A.: Lehendik ere bageneuzkan batzuk, eta horietako batzuk saltzeko dauzkagu, bai. Beste batzuk norberarentzat geratzen dira.

I.O.: Nik guztiak dauzkat salgai. Hau ez da galeria bat, lan egiteko estudio bat baizik. Hemen egiten dugu lan, eta tarteka ateak zabaltzen ditugu, jendea lanak ikustera sar dadin eta, lanen bat gustatuz gero, saltzeko aukera izan dezagun.

G.A.: Bestetik, prest gaude estudioa uzteko beren lanak erakutsi nahi dituzten zumaiarrei, proiektuaren parte da hori ere. Oxforden erakusketa egitea zaila da; itxaron zerrenda luzea dago. Herrian badaude beste margolari batzuk, eta norbaitek nahiko balu, hitz egingo genuke.

Astearen zenbatetan etortzen zarete?

G.A.: Nik libre ditudan tarteak aprobetxatzen ditut etortzeko. Boladak izaten ditut, baina gustatzen zait behin etorrita, ordu batzuk egitea hemen. Lana hobeto egiten dut horrela, eta ez egunean ordubete edo bi eginda.

I.O.: Ni 16:30etik 20:00ak aldera arte izaten naiz estudioan. Margotu egiten dut, infusio bat hartu... Arratsalde osoa pasatzen dut hemen.

Iñaki, zuk margo abstraktuak egiten dituzu.

I.O.: Bai. Horrelako lanak egiteko asko pentsatu behar da zer egin nahi duzun, zein kolore erabiliko dituzun... Hemen lanean lau ordu egon arren, egun osoa ematen dut egingo dudako horri bueltaka. Artistaren lana egunean 24 ordukoa dela esan daiteke.

G.A.: Margotzea terapeutikoa da niretzat.

Koadroan sartuta zaudenean, goizean jaiki eta lehenengo pentsamendua koadroaren ingurukoa da. Eta uste dut margotzen dugun guztiok berdin sentitzen dugula.

Norberak bere txokoa du estudioan?

I.O.: Garbiñeri argitasuna gustatzen zaio margotzeko. Nik, berriz, nahiago dut argi gutxiarekin lan egin, koloreak hobeto hautematen ditudalako.

G.A.: Bai, egia da. Batzuetan esaten diot: 'Baina nola margotu dezakezu hor, ilunpean?'. Nik erakusleihoaren ondoan margotzen dut.

Garbiñe, zuk, berriz, figuratiboak egiten dituzu.

G.A.: Erretratuak lantzen ditut asko. Pila bat gustatzen zait. Enkarguz erretratuak egiteko eskakizunak jaso ditut, eta hasi naiz pixka bat horretan lanean. Proiektu bat itxita daukat, eta hemendik aurrera horretan zentratzea gustatuko litzaidake.

Urriaren erakutsiko dituzue zuen lanak Oxford aretoan.

G.A.: Bai. Guretzat gure lana ezagutzera emateko aukera bat da. Urriaren 1etik 17ra arte izango da.

Hautatu dituzue erakusketara eramango dituzuen koadroak?

I.O.: Frantziako iparraldean egingo den erakusketa batean parte hartuko dut, eta handik bueltan ekartzen ditudan koadroekin osatuko dut bilduma. ■■■



Luis Osa Goikoetxea

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

2000. urtean joan nintzen Estatu Batuetara, zesta puntan jokatzera. Newporten egin nuen debuta, Rhode Islanden. Ameriketako Estatu Batuetako estaturik txikiena da, eta Peio lehengusuak eta nire bi anaiek ere han jokatu zuten; denok Estatu Batuetan debutatu genuen.

Han geratu nintzen, nahiz eta zesta puntarekin amaitu nuen. Orain bost bat urte izango zen. Beti izan dut Euskal Herrira itzultzeko gogo, baina gauza bat dela, bestea dela, han geratu naiz, eta dagoeneko 22 urte daramatzat han.

Kasualitatez sartu nintzen urdaiazpikoen mundu honetan. Nire lagun batek 5 Jotas etxearekin egiten zuen lan; etxean urdaiazpiko bat zuen beti, eta ni beti harekin egoten nintzen.

Urdaiazpikoa mozten ibiltzen nintzen haren etxean, praktikatzen. Behin esan zidan Espainiako kontsulatu batean aurkezpen bat zegoela eta norbait behar zuela urdaiazpikoa mozteko. Frontoitik kanpo horixe egiten nuen nik. Ez zen ni ikasten ari nintzena; hegazkinen mekaniko izateko ikasten ari nintzen. Baina hura ikasita daukat, eta, egunen batean behar badut, hor daukat.

Urdaiazpikoa produktu nahiko berria da Estatu Batuetan; 8-10 urte izango dira horrekin hasi zirela, eta pixka bat edukatu behar da jendea oraindik. Orain arte prosciuttoa [Italiako urdaiazpiko ondua] ezagutzen zuten, eta urdaiazpiko batekin joaten ginenean harekin identifikatzen zuten. Hori orain dela lau pabost urte izango zen. Orain, jendea bidaiatzen hasi delako-edo, badakite urdaiazpikoa zer den. ■■■





Energia erosketaren prezioak

Faktura elektrikoak zati asko dauzka, baina hurrengo lerroak energia kontsumoari dagokion zatian zentratuko ditut:izan ere, hori da energia merkatuan erostearekin erlazionatua, une honetan energiaren prezioari nabarmen eragiten dion faktoreetako bat. Argindarrak duen prezioari buruzko berriak ugari dira merkatuan, ekoizleak eta komertzializatzaileak hara joaten baitira saltzera eta eroatera. Gero merkaturatu egingo dutenek erosi egiten dute, eta kontsumitzaileei ematen diete, prezio horri beren marjina gehituta. Merkatu horri *pool* esaten zaio ingelesez, hau da, igerilekua, funtzionatu ere igerilekuak bezala funtzionatzen duelako.

Merkatuak enkante bidez funtzionatzen du, arrainaren


edo barazkien enkanteetan gertatzen denaren antzera, eguneko 24 orduetarako energia eskaintzeko eta erosteko. Bertan, argindarra sortzen duten enpresek ordu horietako bakoitzerako zer ekoizteko eta zer saltzeko prest dauden esaten dute; era berean, enpresa erosleek ordu horietako bakoitzean zer energia beharko duten esaten dute. Salmentako eta erosketako eskaintzak ordu bakoitzean igerilekua betetzen doaz, merkeenetatik hasita

**BEZA JAISTEA
EZ DA NAHIKOA,
ENERGIAREN
PREZIOA LEGEEEN
MENDE BAITAGO**

azken eskaintzara iritsi arte. Azken eskaintzak ordu hori betetzen du eta horrek finkatzen du orduaren prezioa.

Elektrizitatea hainbat iturritatik sortzen da: energia berriztagarriak, gasa, nuklearra, hidraulikoa... Energia berriztagarriena elektrizitatea sortzeko iturri nahiko merkea da, baina klimaren eraginak mugatu egiten du. Horregatik, sistema elektrikoak iturri osagarriak behar ditu eta une honetan energia fosiletatik datozen iturriak dira. Energia fosilen iturriek CO_2 -aren emisio eskubideak ordaindu behar dituzte, hau da, Europan kutsatzeagatik ordaintzen den prezioa, eta horiek gero eta altuagoak dira. Enpresa elektrikoek eskubide horiek eskuratzen dituzte beren zentraletako gas edo ikatz

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



MIREN OSA GALDONA

Erakusleihoa

Ondo ibili zara oporretan, eh!", esan dizu kalean topatu duzun lagunak. Ez zarete aspaldi elkarrekin egon, baina hargatik ez dio zure berri izateari utzi. "Bai, neska! Instagramen ikusi zaitut tripaz gora eguzkitan gozo". "Ah, egia, zerbait jarri nuen, bai".

"Instagram madarikatua", esan duzu ahopeka. Zerbait hartzeko enkargua jarri diozue elkarri.

Erakusleiho erraldoia da Instagram. Bizitzaren alde panpoxoena aurki daiteke bertan: opor egunak, bapo geratzeko moduko jakiak, jende zorionsua, eta eredu izan nahi duen kuadrilla influenzerra. Hor zehar irakurritako inkesta baten arabera, erabiltzaileen % 85ek onartu dute sareen amarruak antsietatea sortzen diela, ez baita lan makala egunero alai, indartsu eta adoretzu agertzea kamera aurrean. Horretxek saltzen du, erraz bizi garen itxurakeriak.

Dena ez da hipokresia: bi mutil Donostiako Zabaleta tabernatik kanporatu dituztela dioen mezua, elkar musukatzen aritzeagatik. Beste bat jarraian: etxerako bidean neska batek izandako erasoagatik kontzentrazio deialdia.

Errealitate birtualak bestelako zerbait erakutsi nahi duen arren, aske, eroso eta seguru bizitzeko tarte gutxi eskaintzen digun jendartean jarraitzen dugu, batzuek kontrakoa sinetsi nahi duten arren. ■

emisio kutsagarriak ordaintzeko. Kostu horiek, gero, handizkako merkatuan saltzen duten elektrizitatearen preziora eramaten dira. Horrez gain, gas naturala ere kostu handia izaten ari da, eta, gainera, handitzen jarraitzea espero da. Gas naturalak, ikatzak bezala, karbono dioxidoa igortzen du eta Europako Batasunak deskarbonizaziorako ezarritako kanona ordaindu behar du.

Aintzat hartu behar da, gainera, gas edo ikatz zentralak kontrolatzen dituzten Espainiako konpainia handiek dauzkatela zentral hidrauliko gehienak, eta prezio jokoa ondo ezagutzen dute; izan ere, nahiz eta kostuak txikiagoak izan, gas naturalaren maila berean jartzen dituzte merkatuan, errendimendu ekonomiko handiagoa lortzeko.

Planteamendu hau egiten dute: nik ura daukat pilatuta, eta turbina batetik pasatuko dut energia sortzeko baldin eta orain gasari ematen ari zaion prezioa lortzen badut; bestela, balio handiagoa duen beste une baterako gordeko dut. Horrek azaltzen du zergatik ezartzen zuten *pooleko* prezioa azken hilabeteetan zentral hidraulikoek, eta zergatik zen garestiagoa, berez kontrakoa izan behar zuenean.

Eragina arintzeko, Estatuak behin-behineko erabakia hartu du BEZa % 21etik % 10era jaisteko, kontsumitzaileak ordaintzen duen azken prezioan eragiteko. Baina neurri hori ez da nahikoa, energiaren prezioa legeen mende baitago.

Merkatuko jokoa da. Egin apustu! ■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



Aita Mari
JATETXEA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatekx@gmail.com

f i



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a


696 72 61 88
943-14 32 61



Amama
Taberna

tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe - Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 beheak • Zumaia

943-54 35 70 • 688 73 38 56



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47



OKINDEGIA
Arkupe

Nausia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-xopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85



AXA

943-53 03 97
688 71 26 21

Kantauri 2, beheak
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es




bai bidea

Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com

Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

f t i



BAKUN

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Inaki Garmendia

Basadi, 7, beheak • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadidivinet.com
www.basadidivinet.com

Geloz: 11-13 / Armatulok: 15-19:30 / Askelehen gelozan eta tartarban itxia

Larrialditarako: 605 72 87 07 Eltxez etxeko zerbitzua



"Bakar-bakarrrik oinez nindoanean, batzuetan pentsatzen nuen: zertan ari naiz ni hemen?"

ION BRAKAMONTE BIDAIARIA

Ion Brakamontek (Zumaia, 1981) bazuen amets bat ikasketak Brasilen egin zituenetik: motxilero gisa bidaiatzea Ushuaiatik (Patagonia, Argentina) Chicagoraino (AEB). Eta azkenean, hamar urte geroago, ekin zion bide luze horri. Motxila bete esperientzia itzuli da Zumaiara bi urteren ostean.

Testua: **Dorleta Agiriano Lai**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**.



**"NIRE FILOSOFIA DA AHALIK ETA
GAUZA MATERIAL GUTXIEN IZANDA
BIDAIATZEA"**

**"GOGORATZEN DUT NOLA CHICAGON
HEGAZKINA HARTU NUENEAN
HUTSIK SENTITU NINTZEN"**

Zer dela-eta erabaki zenuen motxilero modura bidaia hori egitea?

Aspalditik neukan gogo. Bilbon hasi nituen musika hezkuntzako ikasketak, baina Brasilen egin nuen azkeneko zatia. 2009an bukatu nituen ikasketak han, eta pixka bat bidaiatu nuen gero. Motxilero mordoa ezagutu nuen, eta orduan pentsatu nuen nik ere nahiko nukeela egunen batean hala ibili.

Brasiletik itzuli nintzenean, dena den, hemengo gurpilean sartu nintzen berriro: lanean hasi nintzen irakasle gisa eta musika talde bat ere sortu nuen hainbat lagunekin. Hamar urte pasatu eta gero, baina, posible izan zen bidaia hori hastea motxilero gisa.

Bakarrik egin zenuen bidaiaren zatirik handiena. Askok sentitzen dute nolabaiteko bertigoa bakarrik bidaiatzeko.

Nire ametsa zen, hasieratik, bidaia hori bakarrik egitea. Hala ere, bikotekidea neukan, eta azkenean elkarrekin hasi genuen ibilaldia. Perura heldu eta sei hilabetera, orde, banandu egin ginen, eta bakarrik jarraitu nuen nik. Polita izan zen bidaiaren hasiera, baina bakarrik egin dudan guztia bidaia espiritual baten modukoa izan da.

Bakarrik bidaiatzean libreago zarela uste dut: nahi duzun lekura joan zaitezke, edozein unetan. Gertuko norbaitekin bidaiatzea ere polita da, baina zaila ere izan daiteke; agian leku batera joan nahi du batek, eta beste toki batera besteak. Abentura handiagoa da bidaia bakarrik egitea, norberak bere burua ezagutzeko eta bere mugak topatzeko. Agian bada muturreko zerbait bakarrik ibiltzea errepidean auto stop egiten, mendian gora eta behera, kostatik, oihanetik... Baina oso aberasgarria ere bada.

Nolakoa zen zure egun normal bat?

Banituenu puntu batzuk markatuta mapan, eta banekien zein herrialdeetatik igaro nahi nuen, baina ez nuen gehiegi prestatzen egun bakoitzean zehatz-mehatz nora joan. Banuen GPS baten antzekoa den aplikazio bat, eta hor norakoak begiratzeko, egun horretako helburua zein izan zitekeen pentsatzen nuen; hau da, egun horretan nora heldu nahi nuen erabakitzen nuen. Hala ere, askotan egiten nuen topo jendearekin, eta bisitatzeko lekuak gomendatzen zizkidatenez, pixkanaka-pixkanaka, aldatu egiten ziren hasieran zehaztuta izan nitzakeen helmugak. Baina ez neukan presarik.

Polita zen dena, askotan ez bainekien lo non egingo nuen ere. Kanpin denda bat neraman, badaezpada ere. Errepidean auto stop eginda,



Amerika hegoaldeetik iparraldera zeharkatu du Brakamontek.

ION BRAKAMONTE

autobusez, bizikletaz nahiz oinez mugitzen nintzen; denetik egiten nuen. Sarri boluntario lanak egiten nituen ostatueta, janariaren eta ohearen truke.

Jende asko topatu al zenuen zure egoera berdinean?

Motxilero eta bidaiari askorekin egin nuen topo; batzuen abiapuntua berdina izan zitekeen, baina uste dut berezia dela bidaia bakoitza; esperientzia bakoitzak bereizgarriak ditu zentzu askotan. Nire filosofia da, adibidez, ahalik eta gauza material gutxien izanda bizitzea, ahalik eta diru gutxien gatzatzea, hegazkinak ekiditea eta lurretik bidaiatzea. Nire ustez politena da norbera bere konfort zonatik ateratzea.

Zein izan zen bisitatu eta gehien gustatu zitzaizun lekua?

Peru, Argentina, Txile, Bolivia, Ekuador, Kolonbia, Panama, Costa Rica, Nikaragua, Salvador, Mexiko, Guatemala nahiz AEBetatik igaro nintzen, eta zaila da leku bakar bat aukeratzea. Peru, adibidez, asko gustatu zitzaidan, baita Guatemala eta Mexikoko leku asko ere. Kolonbia ere gustatu zitzaidan hango jendearengatik, eta El Salvador sorpresa polita izan zen, hasieran ez bainuen handik pasatzeko asmorik. Azkenean han pasatu nuen pandemia garaia, eta hiru hilabetez egon nintzen.

Zer-nolako oroitzapena duzu El Salvadorren igarotako pandemia garaiaz?

Uste dut zortea izan nuela orduan ere. Coatepeque izeneko laku batera heldu nintzen eta boluntario lanak egiten hasi nintzen hango ostatu batean. Han harrapatu ninduen pandemiak, eta itxialdia pisu arrunt batean baino askoz ere hobeto pasatu nuela esango nuke: kai bat dago uretara salto egiteko, parean sekulako mendia dago, aire librean egon nintekeen... Primeran pasatu nuen azkenean, eta ikasi ere asko ikasi nuen, yogan eta meditazioan asko sakondu bainuen garai hartan. Elikadura aldatzeari ekin niola ere oroitzen dut, askoz ere garbiago jaten hasi bainintzen, nire elikaduratik haragia guztiz kentzeraino.

Esperientzia polita izan zen, baina egia da han oso gogor jarri zela gobernuak. Guztiz itxi zuten El Salvador, eta ezin zen handik inola ere atera. Azkenean, enbaxadarekin harremanetan jarrita lortu nuen atertzea eta Mexikora sartzea.

Zer izan zen bidaia horretan gehien kostatu zitzaizuna?

Lehenengo sei hilabeteak izan ziren gogorrenak. Atzean utzi nituen musika taldea, lagunak, familia, gero neska lagunak ere harremana uztea erabaki zuen... Hori izan zen gogorrena. Gero, baina,



Gotja ur-jauzia, Perun. ION BRAKAMONTE

**"NIRE ASMOA ZEN HILABETE EGITEA
HERRIALDE BAKOITZEAN, URTEBETE
INGURUKO BIDAIA IZATEA"**

**"BAKARRIK BIDAIAITZEAN LIBREAGO
ZARELA USTE DUT: NAHI DUZUN
LEKURA JOAN ZAITEZKE"**

**"NIRE AMETSA ZEN BIDAIA HORI
EGITEA, ETA BETE DUT. LORTU DUT
BETETZEA"**

konturatu nintzen ezer ez dela betiko. Beste gauza asko ere ikasi ditut bidaian zehar; adibidez, atxikimendu edo lotura material nahiz pertsonal asko ditugula eta, sarritan, ez duela merezi horrek guztiak. Hala ere, askotan sentitzen nuen jendearen falta. Errepidean edo beste edozein lekutan bakar-bakarrik oinez nindoanean, batzuetan pentsatzen nuen: "Zertan ari naiz ni hemen?". Baina gero beti esaten nion neure buruari: "Jarraitu aurrera". Nonbaitera heltzean eta jendea ezagutzean, hobeto sentitzen nintzen berriz.

Espero zenuen kanpoan hainbeste denbora pasatzea?

Nire asmoa zen, hasieran, hilabete egitea herrialde bakoitzean eta urtebete inguruko bidaia izatea. Baina hara heldu nintzenean hain izugarria iruditu zitzaidan dena... Europa txiki gelditzen da horren guztiaren ondoan. Eta azkenean denbora gehiago eman nuen herrialde bakoitzean, libre ibili nintzen. Pandemiak ere atzeratu egin zuen guztia, gainera.

Nola erabaki zenuen etxera itzultzeko ordua zela?

Mexikon ibili eta Tijuana-raino heldu nintzenean, pandemiagatik, lurreko muga itxita zegoela ikusi nuen. Orduan pentsatu nuen nire bidaia AEBetan amaitzeko ametsa alde batera utzi beharko nukeela, eta beheranzko norabidea hartu nuen berriz, Mexiko Hirira iritsi arte. Handik Euskal Herrira itzultzea pentsatzen nuen. Halako bidaietan hainbeste leku ikusten dituzu, non azkenetarako pentsatzen duzun: "Zer gehiago geratzen zait?". Baina gero erabaki nuen azkenengo borroka egingo nuela, eta AEBetako enbaxadara joan nintzen. AEBetan sartzeko bisatua lortu nuen hala. Nire ametsa zen Route 66 delakoa egitea Los Angelesetik Chicagoraino, bidaia biribiltzeko. Eta lortu nuen, baina ez nahi bezala. 20 egunez egoteko baimena baino ez zidaten eman. AEBetan egin nuen ibilbidearen azken zatia oso gogorra izan zen, gainera. Kapitalismo purua dira AEBak, eta guztia dago prestatuta, esaterako, norberak bere autoa izan dezan. Oso zaila da han motxilero moduan ibiltzea. Gogoratzen dut nola Chicagon hegazkina hartu nuenean hutsik sentitu nintzen. "Banoa etxera jada", pentsatu nuen. Askotan, unean-unean, ez gara konturatzen gertatzen ari den eta egiten ari garen guztiaz. Eta ni, ordura arte, ez nintzen kontziente izan bidaian bizitako abenturez nahiz arriskuez. Hala ere, mundua ez da komunikabide askok kontatzen duten bezain arriskutsua.

Zerk harritu zintuen gehien bidaia horretan?



Jendea zein gutxiarekin bizi den hainbat lekutan, eta zer-nolako jakinduria daukaten kultura indigena askok. Esaterako, harritu egin naute naturari dagokionez dituzten balioek; oihanetik lortzen dute elikatze behar dutena, baina hura guztiz suntsitu gabe. Guk hemen jada ez daukagu jakinduria hori, eta ahaztuta ditugu hainbat balio. Industria suntsitzaile bihurtu da dena. Hemen ez gara konturatzen zer gurpiletan harrapatuta bizi garen; kontsumismoan bizi gara, gauzak erostea eta edukitzea dugu oinarri. Ni oso gauza gutxi izanda bizi izan nintzen bidaia horretan; bi urtetik gora egin nituen lau galtzontzilloekin, lau galtzetin parerekin eta lau kamisetarekin. Eta posible dela ikusi nuen. Etxera itzuli nintzenean, pentsatu nuen: "Baina zenbat arropa neukan!". Harritu ninduen konturatzeak hemen zenbat gauza ditugun alferrik, materialak, batez ere. Sinestezina da. Orain borrokan ari naiz, han ikasitako guztia hemen praktikan jarri nahian. Eta ez da erraza izango.

Nolakoa izan da zure buelta, Zumaiaara?

Oso arraroa. Inori ezer esan gabe etorri nintzen. Etxera heldu nahi nuen, eta gauzak nola zeuden nahiz ni nola nengoen ikusi. Handik bi egunera zen nire urtebetetzea, eta jendea zoriontzen hastean esan nien Zumaian nengoela. Egia esan, arraro sentitzen naiz oraindik ere. Hemen guztiok ezagutzen dugu elkar, eta batzuetan ordutegi zehatzetan irteten naiz kalera, jende askorekin ez egoteko eta ez urduritzeko. Azken finean, bi urte baino gehiago egin ditut ia bakarrik, inork ezagutzen ez ninduen lekuetan. Alde batetik, sekulako askatasuna ematen du horrek nahi bezala

ibiltzeko; inork ez zaitu kontrolatzen. Hemen ez da hala. Gure kulturaren parte da, gainera, beti tabernetan egotea. Nik ere banuen ohitura hori lehen, baina orain ez. Gaur egun, tabernaren batean pertsona batekin edo birekin egonez gero molda naiteke, baina jende asko egonez gero, urduri jartzen naiz. Han natura zabalean ibiltzen nintzen, eta horren ostean, txiki gelditzen zait hau.

Eta aldatuta ikusi al duzu Zumaia?

Sumatu dudana al daketa nagusia izan da taberna guztiek terraza daukatela orain. Positiboa da hori. Hala ere, orokorrean, berdin jarraitzen du denak. Uste nuen pandemia zela-eta gehiago aldatuko zela jendea, baina berdin jarraitzen dute gehienek. Seguruenik, ni naiz aldatuta etorri dena. Eta ziur aski, harrapatzen gaituen gurgil horretan berriz sartzen banaiz, beste guztiek bezala jarraituko dut nik ere. Baina espero dut, behintzat, gauza gutxiagorekin bizitzen jarraitzea.

Nahiko al zenuke, egunen batean, bidaia horretan ezagututako lekuetara itzuli?

Bai, uste dut engantxatu egiten duela horrek. Iazko otsailean, Nikaraguan nengoenean, buruan neukan bidaia hori amaitzean Asiara joan nahi nuela. Dena den, oraingoz, ez diot horri heldu. Egia da hasieran beldurra ematen duela halako bidaia bat hasteak. Hemen lotuta zaudenean zaila da buruak *klik* egitea eta alde egitea. Nik dena utzi nuen; lana, etxea, autoa. Bizitza polita neukan hemen, baina horrek ez ninduen betetzen. Nire ametsa zen bidaia hori egitea, eta bete dut. Lortu dut betetzea. Egia esan, edonori gomendatuko nioke halako esperientzia bat bizitzea. ■■■



Denboraldi berriaren irrika

Maila handiko kirol taldetan dabilta hiru emakume hauek: Realean Solozabal, BAT Bidasoa Atletiko taldean Mancisidor eta Barakaldoko Zuazon Aguado. Ilusioz beteta ekingo diote hirurek kirol denboraldi berriari, unibertsitateko ikasgaiak ahaztu gabe. Horren inguruan hitz egin dute BALEIKErekin.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston.** Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Udako oporraldia amaituta, betiko ohituretara itzultzeko garaia izaten da iraila. Halaxe egingo dute Malen Solozabalek (2001), Jone Aguadok (2002) eta Sara Mancisidorrek (2002) ere. Unibertsitateko ikasketetara itzuliko dira eta maite dituzten kiroltako denboraldi berriei ekingo diete.

Solozabal psikologia ikaslea eta Realeko futbolaria da.

Laugarren denboraldia izango du bigarren taldean.

Mancisidor, berriz, gizarte langintza ikaslea eta iraupen erdiko atleta. Iaz aldatu zen BAT Bidasoa Atletiko Taldera, eta bertan jarraituko du denboraldi honetan. Aguado, azkenik, arte ederretan eta eskubaloian aritzen da. Talde berrian orain, Barakaldoko Zuazora mugitu baita. Solozabalek bezala, berak ere bigarren taldean jokatu du.

Hiru kirolariak gogotsu daude datozen hilabeteetan izango dituzten erronkei begira. Aguadok dio aldaketa behar zuela eta eskubaloari jokalaria bezala hobetzera doala Zuazora: "Fitxa bigarren taldean izango dut, baina lehen taldearekin entrenatuko naiz. Askok ikasteko aukera emango dit horrek. Hori da helburu nagusia, ikastea. Partidaren batean lehen taldearen deialdian sartu eta lehen mailan debuta egiteko ametsa betetzearen ilusioa ere hor dago, baina ez dit etsipenik ekarriko horretarako aukerarik ez izateak".

Zuazoko lehen taldearekin entrenatzea, hala ere, ez da berria izango Aguadorentzat. Aurreko denboraldian ere aritu zen beraiekin, baina asteburuetan Pulporekin jokatzen zuen. Arte Ederrak Bilbon ikasi eta astea bertan pasatzen duenez, talde bat bilatu zuen entrenatu ahal izateko. San Adrianen hasi zen, baina bi edo hiru entrenamendu baino ez zituen egin. Berehala pasatu zen Zuazoren bigarren taldera. Jokalari gutxiago zirela jakin zuen, eta horrek entrenamendu ariketak gehiagotan errepikatzeak aukera ematen zion.

Barakaldoko taldean hilabete zerramanean, Joseba Rodriguez *Haitok*, lehen taldeko entrenatzaileak, ikusi zuen eta Euskadiko selekzioetik ere ezagutzen zuenez, eurekin entrenatzeko gonbitea egin zion. Taldea utzi duen Ainhoa Hernandezekin egin zuen lehen entrenamendua oroitzen du Aguadok: "Miresten dudana jokalaria baten alboan nengoan, eta entrenamendua amaituta argazkia eskatu nion halakorik berriro biziko ez nuelakoan. Gerora, ordea, astero ikusten genuen elkar eta lotsa apur bat eman zidan".

Solozabal ere entrenatu izan da inoiz Realeko lehen taldearekin. Une honetan, ordea, urrun ikusten du jauzia emateko aukera. Bestelakoa da helburua: "Ez dut esango lehen mailara igotzearekin amesten ez dudunik, bestela, gezurretan ariko nintzateke. Baina, zintzo diot hori ez dela une honetan dudana helburua. Iaz bete ez genuena bete nahi dut aurren, nire taldearekin mailaz igotzea".

2018an Realeko emakumezkoen bigarren taldea sortu zenetik, Solozabal bertan izan da, eta orain arte egin dituzten hiru denboraldietan, urtero igo dute maila bat, azkenekoan izan ezik. Helburua bete ez bazuten ere, Solozabalek uste du denboraldi txukuna osatu zuten eta berriari begira baliagarri izango zaiela.


Kohesio handiko taldea osatzea ere funtsezkotzat jotzen du, eta horretarako egingo du lan taldeko bigarren kapitain gisa. Gainera, orain arte ez bezala, aldaketa ugari izan dituzte taldean. Hasieratik egon diren jokalaria batzuek ez dute jarraituko eta bost berri daude. Haiei harrera egokia egitea eta taldeko dinamikan sartzen laguntzea izango da lehen



Malen Solozabal.



Sara Mancisidor.



Jone Aguado.

zereginetako bat. Izan ere, Solozabalek berak dioen bezala, Real eta Zumaiako ezberdinak dira alderdi horretan. Realean herri ezberdinetako jokariak elkartzen dira eta Zumaiakon gehienak herrikoak dira eta alde aurretik ezagutzen dute elkar.

Mancisidorren kasuan, pasa den denboraldian bete zuen bere desio handienetako bat: Espainiako Txapelketa jokatzeko. 20 urtez azpiko Kross modalitatean estreinatu zen martxoan eta aire libreko 1.500 metroko distantzian ere aritu zen uztailean. Ezin izan zen finalera sailkatu, baina sekulako esperientzia izan zen eta bizitakoa “errepikatzea” da denboraldi berriari eskatzen diona. Aire Librekoak, Pista Estalikoak zein Krosseko Espainiako Txapelketak jokatu nahiko lituzke. Posible dituen guztiak.

Aurreko denboraldia orain arteko onena dela dio. BAT taldearekin estatu mailako atletismoko ligan aritu zen emakumezkoen maila gorenean eta inoizko marka onenak lortu zituen. Horiek hobetzea du beste erronketako bat.

Horrez gain, Euskadiko txapeldun ere izendatu zuten maila nagusian 1.500 metrotan. Berak 3.000 metroko distantzia du gogokoen, baina ezin izango da gehiago lehiatu, oztopoekin ez bada. 23 urtez azpikoetatik aurrera desagertu egingo da lasterketa hori, eta maila horretara pasatu berri da Mancisidor. Aurrerantzean, aipaturiko 3.000 metroko oztopodun lasterketaren eta 5.000 metroen artean hautatu beharko du. Entrenatzaileak bigarrenaren alde egitea gomendatu dio, eta hala egingo du, baina luze samarra iruditzen zaio. Oztopo lasterketari dagokionez, behin baino ez da aritu, atletismoko ligan probatu zuen eta emaitza bikainarekin, gainera. Espainiako Txapelketara sailkatzeko gutxienez bigarrena segundo hamarren bakarrera geratu zen.

Entrenatu eta ikasi

Behin denboraldi aurea amaituta, sasoiko pasabide neketsuena, Solozabal eta Aguado normal entrenatzen hasi dira. Mancisidorren kasuan, oraindik ez. Azarotik aurrera izango ditu lehen lasterketak. Atletak berak azaldu duenez, bere denboraldiak bi zati nagusi ditu, negukoa eta udaberrikoa: “Negukoan, pista estaliko eta Krosseko lasterketak izaten ditugu otsailera arte. Martxoan geldialdia egiten dugu, eta Aste Santu ondoren berrekiten diogu lehiari, pista irekian. Uztaila artekoa izan ohi da aire libreko denboraldia”.

Asteko ohiko plangintzari dagokionez, BAT Irungoa den arren, Donostian entrenatzen da Mancisidor astean hirutan. Bere abiadura antzekoa duen lagun talde batekin aritzen da arratsalde, entrenatzaile baten gidaritzapean. Donostiako entrenamenduez gain, Zumaiako beste bi korrika saio egiten ditu astean zehar. Kasu horretan ere entrenatzaileak agintzen dio egin beharrekoa. Ikasturte berrian, arratsalde izango ditu klaseak pare bat egunetan, baina horrek ez du urduritzen. Moldatuko dela dio, ez omen du entrenamendu bakar bat galtzeko asmorik.

Ikasketak eta kirola uztartzerakoan, Solozabal ere ongi konpondu da orain arte. Astean lau arratsaldetan entrenatzen da Zubietan, eta goizez izaten ditu klaseak unibertsitatean. Ordutegi aldetik, beraz, arazorik ez du. Etxeko lanak egiteko izaten du zailtasun gehiago, baina dituen tarte guztiak aprobetxatzen ditu, bazkalostekoak eta entrenamendu ostekoak. Azken horietan, hori bai, nahiko nekatuta egoten da.

Entrenamenduetan, arlo fisikoa, teknikoa zein mentala lantzen dute, eta azken hori bereziki interesatzen zaio Solozabali. Astearen behin, lehiarako prestatzen dituen psikologia saioa izaten dute taldean, eta bera lanbide horretarako prestatzen ari denez, arreta handiaz jarraitzen ditu profesionalak esandakoak.

Zuazon, astean bost entrenamendu ditu Aguadok. Arratsalde berak ere. Unibertsitateko klaseekin bat datoz zenbait egunetan, baina ordutegia aldatzeko esperantza du klubak egingo dion baimen bereziari esker. Hala ere, aste barruko egun guztietan entrenatzeak baino, exijentziak harritu du Aguado. Denboraldi aurrean, esaterako, goizez zein arratsaldean entrenatu da eta goizeko entrenamendu fisikoak inoiz izan dituen gogorrenak dira: “Udan, gimnasioan aldeztu aurretik prestatu nintzen, baina ezin izan nuen lehen entrenamendua amaitu”.

Real eta Zuazo bezalako klub handien baliabideak ere nabarmendu dituzte bertan jokatzeko duten bi kirolari zumaierrek. Pandemiak guztia erabat baldintzatu duen honetan, Zuazok jokalariei bi astetik behin PCRak eta partida guztien aurretik antigeno testak egiten dizkiela azpimarratu du Aguadok. Solozabalek, berriz, Realean, psikologoaz gain, prestatzaile fisikoak edota analistak jartzen dituztela euren eskura.

Emakumeak eta kirola

Azken urteetan garapen handia izan du, baina Solozabalek arrakala handia ikusten du oraindik gizon eta emakumeen artean. Baita Realean ere: “Gure talde duela lau urte sortu zen eta urtez urte urrats handiak egin dira. Orain, hirugarren taldea sortu dute eta bi jokalaririk zumaier izango dira han, esaterako. Baina asko dago egiteko oraindik”. Bigarren mailara igo berri den gizonen bigarren taldeak Anoetan jokatu du denboraldi honetan; emakumezkoen lehen taldeak, aldiz, “bi edo hiru aldiz, asko jota”.

Beste kirol askotan bezalaxe, atletismoan ere agerikoa da gizonentzat eta emakumeentzat araututako kirol jantziaren dagoen aldea. Olinpiar Jokoen erakusleihoak hausnarketarako atea zabaldu du eta Mancisidor ados dago emakume atleten kirol arropa sexualizatua dagoela dioten baieztapenekin. Bera topa eramatera ohitu da eta gaur egun erosoagoa egiten zaio, baina bere zenbait lagunek nahiago dute kamiseta. Horregatik, uste du zer jantzi erabakitzeko aukera izan beharko luketela.

Aguadok genero bakoitzari ematen zaion oihartzunean ikusten du aldea jokalariei gisa. Baina epailea ere bada, eta lan horretan bizi izan ditu unerik gogorrenak: “Nire bikotea gizona denean, nik jaso ohi ditut protesta eta kexa gehienak. Arauak ba ote dakizkidan eta titulua ba ote dudan galdetu didate, nire gaitasuna ezbaian jartzeko. Alboan dudak gizonarekin ez dute egiten. Gizonak gehiago dakitela eta niretzat arbitratzea denbora pasa dela pentsatzen dute, baina ni berdin prestatuta nago eta lanera noa”.

Solozabal ere sentitu izan da gutxietsita. Atzera begiratu eta baloieri lehen ostikoak ematen hasi zeneko garaia oroitzen du. Deseroso sentitzen zen mutil artean. Emakume izateagatik, sarritan ez zioten baloia pasatzen libre egon arren, eta bere golak ere ez ziren berdin ospatzen. Orain, harro sentitzen da noraino iritsi den ikusita. ■■■



**DENBORALDI AURREA
AMAITUTA, SOLOZABAL
ETA AGUADO NORMAL
ENTRENATZEN HASI
DIRA. MANCISIDOR EZ**

**KLUB HANDIEN
BALIABIDEAK
NABARMENDU DITUZTE
HAietan JOKATZEN
DUTEN BI KIROLARIEK**

Mende erdia barraren atzean

ANTXON SEGUROLA, TABERNARIA

Erretiroa hartuta, baina ez guztiz. Mende erdi bat egin du Antxon Seguro la iraundegik tabernako barraren beste aldean: Justan ia bizitza osoan; Aita Mari jatetxean laguntzen azken aldian. Zumaia aldatu den bezala, tabernariaren ofizioa, eta tabernak ere bai, asko aldatu dira hamarkada hauetan, eta horren lekuko izan da Seguro la. Erretiratu bada ere, erretiro aktiboa da berea.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Gizarteak denborarekin izaten duen eraldaketaren primerako lekukoak izan ohi dira tabernak eta haiek eramaten dituzten pertsonak, tabernariak. Are gehiago, Antxon Seguro la iraundegirekin gertatu bezala, berrogeita hamar urte luze badaramatza barraren beste aldean lanean. Herrian bertan, ohituretan, edota bezeroen tipologia izandako aldaketak sumatu ditu Seguro lak urte hauetan guztietan, Justa tabernan gehienbat, baina baita Aita Mari jatetxean ere. Eta geratzen zaizkionak: 66 urterekin erretiroa hartu du Seguro lak, baina “erretiro aktiboa” da, Eñaut semeak gogoratu duen bezala. “Gizarte Segurantzako bere kuota ordaintzen jarraitzen du. Eta horrekin nahi dituen ordu guztiak sar ditzake hemen”, dio Eñautek. Aita Mari jatetxea da semeak aipatzen duen “hemen” hori, eta une honetan hutsik dagoen jangelan jarri dugu berriketa saiorako hitzordua.

Belaunaldiz belaunaldi pasa da ofizioa Antxon Seguro laren familian, baita taberna bera ere urte dezentetan. El Ciervo taberna eraman zuen familia honek, Kofradiako eraikinean. Baina nola El

Ciervo? Ez al zen, bada, Justa? “Tabernaren izena beti El Ciervo izan zen –garai batean tabernako horman egon zen animalia adardunaren burua da horren seinale, nahiz eta hormakoa ez zen, berez, basahuntzaren burua–, baina gure amama Justak fama handia zuen herrian, eta hala ezagutzen hasi ziren: Justa. Garai hartan marinel asko ibiltzen zen bertan; Kofradia ere hantxe zegoen, eta bakailaoa eta antxoak ateratzen zizkien gure amamak”.

Txikitatik ikasi behar izan zuen tabernan mugitzen. “Hamasei urterekin hasi nintzen lanean tabernan. Eskolan nenbilen orduan, eskola profesionalean. Aitak eskatu zidan laguntzeko bazkariak-eta ateratzen. Beste bi urte egin nituen eskolan, baina hura utzi ondoren, tabernan segitu nuen”. “Garai hartan bazkariak-eta ematen” hasi zirela du Seguro lak gogoan, “baita afariak ere. Estalapean hasi ginen mahaiak-eta jartzen eta bazkariak eta afariak ematen, marmitakoak-eta”.

Egun osoan edariak zerbitzatzen ibilita, taberna girotik ihes egiteko aukera handirik ez zuen Antxonek. Izan ere, Kofradiako eraikinean bertan bizi ziren, “lehenengo pisuan”, salmenta gelaren alboan; lanpostua justu behean izaten zuen, tabernan. Dena, baina, ez zen lana, eta parranda



irrimarra



koskorrak egiteko aukera ere izan zuen bere gaztaroan. “Aita bizi zenean, 17 urte nituenetik 20 urte bitartean, paga ematen zidan jaietan Taosa diskotekara joateko. Garai hartan igandean bakarrik genuen jai, baina lehenbizi mezetara joan behar genuen, goizean. Gaueko 10:00ak arte edo egoten zen Taosa zabalik, eta ondoren Metrora joaten ginen, tripakiak eta gildak jatera”.

Antxonek 20 urte zituela hil zitzaizen aita, eta han pauso bat aurrera eman behar izan zuten Arantxa arrebak eta Antxonek berak: bien artean hartu zuten taberna. “Anjel anaia soldadu zegoen, eta Gurutze Gorrian bukatu zuenean, hirurok hasi ginen tabernan lanean”.

Justa tabernatik pasatzen zen bezero mota asko aldatu zen denborarekin. “Zapatu goizean jendeak lan egiten zuen, eta eguneko lanaren bukaeran txikiteo pixka bat izaten zen, kafe toreroa... Gauetan izaten ziren afariak, Estalapean, baina bestela...”. Jaiegunetan lan gehiago egin behar izaten zutela dio ostalariak. “Lehenbizi, jendea mezetara joatean zen, eta gero jaisten ziren tabernara, salda hartzera-eta. Ohikoa ez zen beste jende bat etortzen zen jaiegunetan tabernara; baserritarrak seme-alabekin ere etortzen ziren hamaiketakoak jatera; edo beste batzuk hondartzatik bueltan emaztearekin bermut bat hartzera. Gero, arratsaldeetan, kafeak eta kopak ateratzen genituen karta partidetarako”.

“Aita-semeak tabernan daude, ama-alabak jokoan”, dio abesti batek. Hala gertatzen al zen Justanean ere? “Emakume gutxi izaten genuen tabernan, eta agertzen ziren gutxiak senarraren alboan egoten ziren. Hori igandean, umeekin-eta etortzen zirenean. Baina, bestela, astean zehar, gizonak ziren tabernako bezeroak; emakumeak etxean geratzen ziren”.

Denborarekin, baina, hasi ziren gauzak aldatzen. “20 urte nituela hartu genuen taberna, eta 22rekin

gauzak aldatzen hasi zirela ikusi genuen.

Kuadrillakoak etortzen hasi ziren, lagunak ere bai; arratsaldean karta partida jokatu, eta gero Taosara-edo joaten ziren. Gero, 23 edo 24 urterekin, taberna ixten hasi ginen eta lagunekin Txitxarrora joaten”.

Santelmoak dira herria aldatu izanaren beste adibide bat. Orain herriko festa nagusiak dira San Telmo jaiak, baina lehen ez zuten oihartzun handirik herrian, nahiz eta ospatu, ospatzen zituzten. Lehen ere Kofradiako bandera igotzen zutela du gogoan Antxonek, baina ekitaldi horretara ez zela inor agertzen. “Garai berezia izaten zen. Imanol Osa *Pordillos* etortzen zen; Glorioso San Telmo arrantza ontziaren patroia zen, baita Kofradiako presidentea ere. Berak igotzen zuen bandera, baina ez zen inor egoten hura ikusten”. Bandera igo eta jaitsi bakarrik ez; prozesioa pasatzen zenean Kofradiako kanpai txikia jotzea ere beraien esku geratzen zen.

Une ez hain atseginak ere bizi behar izan zituzten. “1970eko hamarkadako erdi aldera izango zen. Espainiako bandera ere jarri behar izaten zuten, eta han igo ziren lagun batzuk hori eragoztera. Borroka izan zen aldekoen eta kontrakoen artean. Handik hogeit bat minutura

Antxon Segurola Iraundegi

- **Adina:** 66 urte.
- **Ikasketak:** lanbide profesionala
- **Lanbidea:** tabernari erretiratu
- **Tabernaria ez banintz...** ez dakit... Yeregui enpresan ere ia sartu nintzen. Baina ofizio hau zer den ikusita, orain ez nuke taberna hartuko!
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** trago batzuk hartzea, aire pixka bat hartzeko.




guardia zibilak etorri ziren, eta taberna itxi ziguten”.

2000. urtean bandera lapurtu zuten. “Masta agertu zen, baina bandera ez. Esan zuten getariarrek eraman zutela; beste batzuek zioten oriotarrak izan zirela. Batere harritu ez bandera zumaia batek lapurtu izana”. Beste bandera bat enkargatu zuten, “elegantea”, eta Kofradian gorde zuten, “giltzapean”.

Pandemiak ohitura oraingoz eten aurretik, arrantza ohi batek igo izan du Kofradiako

bandera. Jaitsi, ordea, Antxonek jaisten zuen behin jaiak amaituta. 2018koa urte berezia izan zen Seguiolarentzat eta haren familiarentzat, azken aldiz jaitsi zuelako bandera San Telmo jaien amaieran. Urte horretan bertan itxi zuten Justa taberna. “Ziklo bat bukatzeko” gogoia zutela diote aita-semeek: “Ziklo hori lehenago bukatu behar zen, asko luzatu zen-eta”. Gaur egun semearen jate txean laguntzen du. “Ahal dudanean laguntzen dut, egoera honi buelta eman arte, pandemia honekin ez dakigu zer gertatuko den-eta”. ■

NON DAGO BALEIKE?



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali irailaren 20a baino lehen. **Saria:** TIPITAKIN bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



Gorka Intxaurren
Baleikeko bazkidea da
Baleike pertsonaia aurkitu duena.

tipitaki

ZUMAIAR

bat gehiago



**BATU BALEIKEREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

Eskolara buelta: hainbat gako



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Urduritasunagatik, ordutegi aldaketagatik, gurasoengandik banandu behar izateagatik... txikientzat beti izaten da garai zaila irailean eskolara bueltatu behar direnekoa. Kasu gehienetan ezinbestekoa da, beraz, galdera egitea: zer egin dezakegu guk, guraso bezala, egoera hau leuntzeko?

Presentzia: desberdintasuna sortzen duena presentzia izaten da askotan; hau da, batera gaudeneko presentziaren gradua. Ematen diogun kontaktu fisikoa, zenbateraino gauden arreta jartzen beraiei. Egun guztia eskolan igaro ondoren, arratsaldean ezin dugu egon hiru eginkizun desberdin egiten haurra zaintzen dugun bitartean.

Gure izate guztian behar gaitu: besarkada, kontaktu, laztan... asko beharko ditu ziurrenik. Hala izanik, inongo eragozpenik gabe emango dizkiogu. Behar duena eskatzen digu; beraz, entzun diezaiogun.

Bateria kargagailua: metafora hau erabil daiteke batera ez egotetik pixka batera falta nabaritzea normala dela adierazteko, elkarren bateria gastatzen ariko balitz bezala. Mugikorrek edo bestelako gailu elektronikoekin egiten dugun moduan, guk ere

bateriak maite dugun jendearen maitasunez betetzea behar dugu.

Eskolara joan aurretik elkarren bateriak kargatu behar dira eta horretarako besarkatuta egon behar da denbora luzez, inoiz ez 20 segundo baino gutxiago. Benetan betetzen duen besarkada bat eta ez berehalako horietako bat.

Objektuak: zenbait eskolatan ez dute haurrak atxikimendu objekturik eramatea onartzen. Garrantzitsuak dira, ordea, eskolako nostalgia une hauek kudeatzen laguntzeko. Objektu horrek segurtasuna, lasaitasuna... transmititzen dio haurrari.

Objektua eramatea onartzen bada, ama eta aitaren faltari aurre egiteko egokiena zein den erabaki beharko du. Objektu horrek edukiko duen funtzioa azaldu beharko zaio haurrari: "Besarkatu nire falta sumatzen duzunean eta lagunduko dizula uste duzunean".

Objekturik ezin bada eraman edo haurrak ez badu eramaterik nahi, bestelako zerbait topa

daiteke: eskumuturreko bat, argazki bat, lepokoa...

Mezuak: irakurtzen jakinez gero, horrelako zerbait idatz daiteke: "Asko maite zaitut, harro nago zutaz", "Oraintxe bertan zu besarkatzen ari naiz urrunetik", "Zure ama izatea opari bat da"... Hitz horiek bihotza betetzen dute!

Beti elkarrekin: garrantzitsua da haurrari adieraztea bananduta egon arren gure arteko lotura ez dela hausten. Hari bat dugu lotzen gaituena, ikusezina dena, eta beti elkarrekin mantentzen gaituena.

Horrek lasaitasun eta segurtasuna ematen dio. Gurasoak bertan egon ez arren, beti berarekin daudela pentsatzea.

Bukatzeko, gogoratu horrekin guztiarekin batera, emozio denak **balioztatu** behar ditugula. Triste egotea, haserre egotea eta pozik egotea, denak dira zilegi. Balioztatzean, haurrak eskolan egonik gure falta sumatzean sentitzen duena ulertzen eta onartzen dugu, eta sentimendu horri balioa emango diogu. "Ulertzen dut nire falta sumatzea eta nahiago zenukeela ni bertan egongo banintz". Horrela sentitzea normala dela ere adierazten da, bere emozioa legitimatzen da. ■

**GOGORATU HORREKIN
GUZTIAREKIN BATERA,
EMOZIO DENAK
BALIOZTATU
BEHAR DITUGULA**

Sarea

Arrain honek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki, sarean harrapatuta ez gelditzeko: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, irteerara iritsi arte. Baina nondik hasiko da? Zein zirrikitutatik joan beharko du? Lau dituzu aukeran.



- 1 →
- 2 →
- 3 →
- 4 →



MARIPURTZIL!
POZIK ITZULI
ZARA ESKOLARA,
EZTA?



Sudokua

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zaio. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K, O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zaku Lasterketa


Lehen iruditik bigarrenera

bospasei segundoko aldea besterik ez dago, baina tarte horretan gauza asko aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da eta elementu berri bat ere agertu da. Ikusten al dituzu?



Hamabostekoa

Bai ederrak garai bateko hilarriak. Irudi honetan, ezkerre eta eskuine ez dira erabat simetrikoak. Bila itzazu bien artean dauden aldeak. Hamabost dira guztira.



Mezu gordeak


Erabili marrazkitxoen alfabetoa eta pertsonaia bakoitzak zer dioten jakingo duzu. Esaldi horietako bat esaera zahar bat da, zein da?

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____

ALFABETOA															
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	:	!	?	*	+

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretégia · asador
José Blázquez

Patzila Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



EGOKI

*Erloju
eta bitxi denda*

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
ERREBERA KALEA, 6 20750 ZUMAIA TEL. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olazola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77
matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelese praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60



Candido Garcia, Aixako zuloaren ahoan. GORKA ZABALETA

"Lurpean milaka kilometro galeria eta kobazulo daude oraindik inork ezagutu gabeak"

Gehienoi erabat arrotza zaigun lurpeko mundu liluragarri bat daukagu etxe ondoan, Zumaiaetik oso kilometro gutxira. Geoparkeko eremuan dauden kobazuloak eta galeriak ikertzen ari da Candido Garcia Maiztegi, Felix Ugarte taldeko kideekin batera.

Testua: **Gorka Zabaleta.**
Argazkiak: **Gorka Zabaleta**
eta Osco.

Itziariko industrialdean bidean gora hartuta, behin kaxkoaren gainaldean dagoen enpresa multzoa atzean utzi orduko ikusten da Aixako sakonunea. Muinoek erabat inguratzen duten zulo bat da, inguruko ur guztiak biltzen dituena. "Urak ihesbide bakarra du, haitza zulatzeari", azaldu du Candido Garciak (Donostia, 1964). Autoa bide bazterrean utzi eta bidexka batetik basoan murgildu gara. Maldan behera, laster iritsi gara zuloaren hondora; eta han, Itziariko industrialdearen oinetan, ia beste dimentsio baterako sarbidea dirudien Aixako kobazuloaren ahoa.

Candido, harrituta nago Aixako kobazuloa non dagoen ikusita, Itziarko industrialdearen azpian.

Bai, sare karstiko oso garrantzitsu baten gainean dago industrialdea. Azpian, kobazuloak eta galeriak daude. Kilometroak eta kilometroak. Inguru honetan, galeriak konektatzeko bideak bilatzen ari gara eta uste dugu gutxienez 40 bat kilometro galeria egon daitezkeela elkarri lotuta.

Zerk bultzatuta hasi zinen kobazuloak esploratzen?

Niri betidanik gustatu izan zait natura eta mendira joatea eskolako lagunekin. Kobazuloetako zaletasuna berez etorri zen. Hasi ginen lagun bat eta biok ezagutzen genituen pare bat kobazulotara joaten, gustatu egin zitzaigun, eta Aranzadiko Zientzia Elkartera jo genuen, informazio eta laguntza bila. Eta horrela hasi nintzen, 15 urte nituela.

Espeleologiak badu asko abenturatik...

Horregatik da hain erakargarria. Lurrazalean ez da leku bakar bat gelditzen gizakiak ezagutzen ez duenik edo zapaldu ez duenik. Eta, aldiz, lurpean milaka kilometro galeria eta kobazulo daude oraindik inork ezagutu gabeak. XIV. mendeko esploratzaileak itsasontzi batean sartu eta Ozeano Bareko irla galdu batean azaltzen ziren; guk halako sentazioak bizi ditzakegu gaur egun lurpreko kobazuloetan, urrutira joan gabe, Gipuzkoan bertan.

Baina bere arriskua ere izan dezake, gauzak ez badira behar bezala egiten.

Espeleologia taldean egin behar da, hori funtsezkoa da. Teknika batzuk ikasi behar dira, kobazuloetan ibiltzen ikasi, ezagutza batzuk behar dira. Horretarako ezinbestekoa da dakitenen eskutik ikastea. Gainera, talderen batekin arituz gero, materiala, aseguruak eta abar errazago izango dituzu. Bakarrik, inoiz ez.

Zu geologoa zara. Zientzialariarekin begiekin, zer bilatzen duzu kobazuloetan?

Espeleologiak mundu bat zabaltzen dizu zientziaren ikuspegitik. Esate baterako, hidrogeologia, lurpeko uren ikerketa; edo geomorfologiaren aldetik, nola sortu diren galeria horiek, zergatik... Oso paisaia berezia da eta oso modu berezian sortzen da.

Zergatik diozu oso paisaia berezia dela? Kobazuloak ez dira edozein lekutan sortzen?

Itziar inguru honetan daukagun paisaia mota honi karst deitzen zaio, eslovenieratik hartutako hitza da. Eta berezia da, bai, ez da edozein lekutan gertatzen. Kareharriak behar dira horrelako paisaiak sortzeko. Kareharriak eta ura; azido karbonikodun urak kareharria disolbatzeko gaitasuna du, eta, pixkanaka baina etengabe, harria jan egiten du. Urak milioika urtetan egindako lanaren emaitza dira lurpeko kobazuloak eta lurrazaleko paisaia karstikoak. Biak erabat lotuta daude.

Aixa adibide gisara erabilita, inguruko ur guztiak kobazuloan biltzen dira, eta gero zer bide egiten dute han barruan? Nora doaz?

Bai, norbaitek galde dezake ea zergatik ez den laku bat sortu sakonune honetan... Urak bere bidea egin du haitzean zehar, eta pasabide sare konplexu bat sortu du mendiaren barruan. Errekastotik jaisten den ura, edota lurrazaletik modu difusogoa pixkanaka haitzaren barrualderantz sartzen diren tantak, denak biltzen dira leku berean, sare bakarra osatzen duten maila ezberdineko pasabideetan, goitik behera. Goiko galeriak zaharragoak dira, behekoak berriagoak.

Galeria horiek dira guk esplora ditzakegunak. Beheko galerietan daude ubide nagusiak eta ura azkenean iturburuetatik bueltatzen da azalera. Aixako sistemak jasotzen dituen urak, esate baterako, Deba ibaira iristen dira. Zehazki, tren zubiaren azpian dagoen iturburuan agertzen dira.

Beraz, galeriak daude, eta altuera ezberdinetan?

Bai, oso sistema konplexua da. Karstak milioika urtetan izan duen bilakaeraren arrastoa dira altuera ezberdinetan dauden galeria horiek. Izarraitz inguru honetan, iturburuak ibaien altueran daudela ikusi dugu. Harreman zuzena dute. Duela 500.000 urte ibaiaren altuera askoz gorago zegoen, eta, ondorioz, garai hartako galeriak eta iturburuak ere gorago zeuden, ibaiaren parean. Beraz, orain kobazuloetan aurkitzen ditugun altuera ezberdineko galeriek adierazten digute garai bakoitzean ibaiaren altuera non zegoen.

Eta pentsatzen dut horrek datu asko emango dizkizuela ikerketarako.

Zientifikoki garrantzi handia du. Kanpoaldean, ibaiertzetako sedimentuak desagertu egiten dira, higaduragatik; baina kobazuloetan oso ondo kontserbatzen dira, eta sedimentu horietatik informazio asko lor daiteke, adibidez, garai ezberdinetako klimaren inguruan. Balio handiko informazio asko gordetzen duten kutzak dira kobazuloak.

Nola egiten duzue lan kobazulo berriak esploratzeko?

Lehenik eta behin, ahalik eta informazio gehien lortzen saiatzen gara, ingurunea ahalik eta ondoen ezagutzeko. Kobazulo berrien sarrerak bilatzeko garaian, mendia goitik behera eta modu sistematikoan arakatu beste modurik ez dago. Askotan, lurrean dagoen zulo txiki bat izan daiteke kobazulo sistema ikusgarri baten sarbidea. Eta behin barruan, pixkanaka eta kontu handiz. Kobazulo batzuk txikiak dira eta asteburu batean amai dezakezu lana. Baina, Aixaren kasuan, 50 urte baino gehiago daramatza jendeak kobazulo sistema esploratzen, eta oraindik, gaur egun, galeria berriak aurkitzen ditugu.


Zuen taldeak zenbat urte daramatza inguru hau ikertzen?

Modu sistematikoan lanean, bospasei urte. Badaude askoz urte gehiago daramatzaten taldeak.

Badago zerbait bereziki harritu zaituena?

Sarearen luzera oso deigarria da; galeriak nola dauden altuera ezberdinetan eta ibaiaren bilakaerarekin duten harreman zuzena; sedimentuen kalitatea... Ezaugarri horiek ez dira leku askotan aurkitzen.

Aixako sistemako galeriak elkarlotuta daudela uste duzue eta lotura horiek bilatzen ari zarete. Hori nola egiten da?





Urak egiten duen bidea jakiteko kolorantea erabiltzen da. Puntu batean bota eta non agertzen den ikusi. Itziar inguru honetan, teknika hori erabilia ikusi dugu industrialdea eta Deba ibaiaren artean dauden kobazulo guztietako urak iturburu bakarrean biltzen direla, Erribera Goikoan. Beste kontu bat da kobazuloen arteko lotura espeleologikoa. Sistema honetan kobazulo asko daude eta batzuk oso luzeak dira. Aixaren kasuan, 15 kilometro baino gehiago daude esploratuta eta ia erabat topografiatuta; Ermitia Behekoan ere 10-12 kilometro ezagutzen ditugu, baina badakigu askoz gehiago daudela oraindik esploratu gabe;

Ibarrengo leizearen kasuan, 2017an lortu genuen Aixako sarearekin lotzea. Badakigu horiek guztiak eta beste batzuk, sistema bereko parte direla, sorrera komuna dutela eta biltzen dituzten urak leku berera iristen direla. Beste kontu bat da espeleologikoki lotuta dauden edo ez; alegia, pertsona bat aho batetik sartu eta beste batetik atera daitekeen. Uste dugu posible dela, baina urtetako lana izan daiteke bidea aurkitzea.

Zergatik da garrantzitsua lurpean dagoena ezagutzea?

Badu berezko balioa, mendiak, irlak edo lurmuturrak ezagutzea bezalaxe. Baina, horrez gain, garrantzitsua da ikuspegi praktikotik ere. Adibidez, lurpeko urak hobeto ezagutzeko. Ur edangarri gehiena lurpean dago gordeta eta funtsezko baliabidea da gure bizitzarako. Ezinbestekoa da ondo ezagutzea egoki kudeatzeko. Eta ikerketa zientifikorako aukera asko eskaintzen ditu; klima eta paisaiaren bilakaera aztertzeke, esate baterako.

Inguru honetako kobazuloetan termometroak jarri dituzue, temperatura neurtzeko. Zer helbururekin?

Kobazuloak leku paregabeak dira tenperaturaren bilakaera neurtzeko. Temperatura oso establea da urte osoan, ez da aldatzen. Are gehiago, inguru horretako urteko batez besteko temperatura da kobazuloek izaten dutena. Zumaiaiko urteko batez besteko temperatura ezagutzeko kobazulo hauetako batean sartu eta bertan neurtzea da sistemarik errazena. Jarri ditugun termometroekin, neurtu nahi duguna da batez besteko hori aldatzen ari ote den, klima aldaketaren eraginik ba ote dagoen. Aldaketa txiki batzuk sumatu ditugu, gorantz egin duela pitin bat, baina oraindik lagin laburregia daukagu, bost urte baino ez.

Kostaldekoko labarrak, flyscha, dagoeneko ezagunak dira bertakoentzat eta bisitarientzat. Karsta, berriz, ezezaguna da gehienontzat. Zer egin daiteke ezagutzera emateko eta daukan balioa aitortzeko?


"KOBAZULOAK LEKU PAREGABEAK DIRA TENPERATURAREN BILAKAERA NEURTZEKO"

"AIXAREN KASUAN, 50 URTE BAINO GEHIAGO DARAMATZA JENDEAK KOBAZULO SISTEMA ESPLORATZEN"

Lehenik eta behin, kontatzea eta ezagutzera ematea. Horrez gain, erakustea. Hori pixka bat zailagoa da. Karstaren lurrazaleko elementuak erakusteko ibilbideak antola daitezke zailtasun handirik gabe. Lurpekoa konplexuagoa da, baina, hala ere, kobazulo asko daude irisgarriak direnak eta osagai erakargarri eta interesgarriak dauzkatenak dibulgazioaren ikuspegitik. Kobazuloen inbentarioa egiten ari dira, aztertzeko zer aukera dauden. Nik uste dut batzuk bisitagarriak direla. Hori bai, azpiegiturarik gabeko bisitak izango lirateke, muntaia ikusgarririk gabe. Hemen ez daukagu elementu ikusgarririk, hauek ez dira Pozalaguako kobazuloak; baina, eduki aldetik, ondo landuta, gauza asko esplikatzeo aukera ematen dute. ■■■



© Osco



ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA




Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalarri

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA




pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración



Julio Beobide, 2 • ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Elengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industriagunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com



**OSA
BERNIZATUAK**

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49




OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Korta Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



Rosi *Garbiketak*

**Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa**

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

Euskal Festak Zumaian 1900 urtean



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@IMANOLAZKUE

Uztailean, atal honetan, herriko jaiak izan genituen mintzagai, baina ez genituen denak aipatu; izan ere, bat nahita irailerako utzi genuen, desberdina zelako eta erlijioarekin zerikusirik gabea: 1900eko irailean Zumaian izan ziren Euskal Festak. Gertaera handia izan zen herrian, arrastoa utzi zuena, eta oraindik ere suma daitezke gurean festa haren oihartzunak...

Lore jokoetatik euskal festetara

Lehen euskal festak Anton Abadia Urrustoi politikariaren eta diplomatikoaren ekimenez antolatu ziren, Ipar Euskal Herrian, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, “lore joko” izenarekin. Lore jokoek, berez, Antzinako Erroman zuten jatorria, leku askotan egiten ziren, eta joko haiek antolatuta, Abadiak euskara eta euskarazko literatura indartu nahi zituen. Gero, Abadiaren ondoren, lehiaketa haiei segida eman zieten Nafarroan zenbait euskaltzalek (Iturralde, Oloriz, Arturo Kanpion...), euskal foruen galerari erantzuteko asmoz. Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ideia hura bere

egin eta 1893an Azpeitian antolatu zuen lehen Euskal Festa; harrezkero, Gipuzkoako beste hemezortzi udalerritar ere eraman zuen ospakizuna, urtero herri batera, eta tartean izan zen Zumaia, 1900eko irailaren 22, 23, 24 eta 25ean.

Prestakuntza

Gertaera hura mugarri garrantzitsua izan zen Zumaiarako. Izan ere, euskalduntasuna eta euskara agerian jartzeko ez ezik, herri osoa lanean jartzeko ere balio izan zuen, eta herritar gehienek hartu zuten parte. Prestakuntzak garaiz hasi zituzten:

- Dantzariei erakusten: “Para director o maestro de los dantzaris que deberán ejecutar sus ejercicios durante las fiestas Euskaras de esta villa, nombran al bailarín Dⁿ Lorenzo Pujana, vecino de Villafranca”.

EUSKARA AGERIAN JARTZEKO EZ EZIK, HERRI OSOA LANEAN JARTZEKO ERE BALIO IZAN ZUEN

- Musika bandaren zuzendaria (Bonifacio Kalparsoro) gaixo zegoenez, alkateari baimena eman zioten ordezkoa bilatzeko, komeni zelako irailerako “que la Banda municipal se halle a una altura bastante regular”; Zarautzen topatu zuten ordezkoa, Antonio Abad; halaber, musika instrumentu hondatuak konpondu eta berriak erosi zituzten. Gainera, bestelako pizgarriak ere eman zizkieten musikariei: “Para estímulo de los músicos de la banda y con el fin de que estos acudan a los ensayos con la puntualidad debida, acuerdan de que en el interrupto que media de hoy hasta las fiestas euskaras se les suministre un poco de vino en los ensayos”.

- Frontoia txukundu eta konpondu egin zuten eta pilota partidetako pilotariak lotu zituzten.

- Bandera bat erosi zuten Udalera: “se estudie la adquisición de una bandera que ostente las armas del Municipio y sirva de ornamentación en las referidas fiestas, como así bien en los actos solemnes”, baita


bestelako banderak
apaingarriak ere.

- Argiztapen berezia prestatu zuten: “poner en conocimiento del rematante del alumbrado público por electricidad, que los expresados días, necesitará este municipio, además de las actuales, 1.200 bujías de luz, o sean 120 lámparas incandescentes, para establecer en la Plaza Mayor, Paseo de Odieta y Muelle de este puerto (...). También se acuerda se traigan de Bilbao 300 farolillos de papel para las referidas iluminaciones”.

- Jendetza handia espero zutenez, ostatu inprobisatuak jartzeko baimena eskatu zuten herritar batzuek, baita Udalak eman ere.

- Etxeak txukuntzeko eta zuritzeko agindu zieten herritarrei: “se ordene se arreglen y blanqueen las fachadas de las casas de esta población para las fiestas Euskaras”.

- Festak iragartzeko esku programa eta kartel ugari egin zituzten. Hauxe erabaki zuen Udalak: “acuerdan se haga una tirada de 8.000 carteles; impresos de mano y 150 grandes para anunciar en las poblaciones”. Kartel handi horietako bat gordeta dago



Euskal Jaiak iragartzeko karteltzarra. ZUMAIKO UDALA

txukun-txukun Zumaiaiko Udal Artxiboan.

Egindakoa

Lau eguneko festen kontakizun zehatza egin zuten *Euskal Erria* aldizkarian, eta horri jarraituko diogu xehetasunen berri jakiteko; gainera, han adierazitakoa udal aktetako beste informazio batzuekin osatu egingo dugu, baita *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian argitaratutakoarekin ere.

Nolako herria ikusten zuten kanpotik zetozenek? Herriaren sarreran zintzilikarioak eta bandera ikusgarriak zeuden, eta Udalak erramu arku handi bat ere eraiki zuen, hitz hauekin: “Bizi bedi euskera. / Gipuzkoako ekautari [diputatu] jaunai / eta Euskal-itz-jostaldien Batzarreari / Zumayako erriyak” eta “Erbestetako anaiak / Ongi etorriak izan zaitezte / Zumayako euskal-festetara”. Honela deskribatu zuten herria *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian: “Zumaya presentaba magnífico golpe de vista, uniendo á sus muchos encantos la extraordinaria animación que se notaba por la afluencia de cerca de media provincia y el bonito conjunto que ofrecían todas las casas recién blanqueadas y luciendo caprichosas colgaduras y banderolas, que enteramente hacían el efecto de bandada de

palomas adornadas con vistoso lazos”.

Irailaren 22an, larunbatean, hasi ziren jaiak. Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak sailkatu egin zituzten, lehiaketarako. Ganaduak erakusgai Erribera kalean egon ziren, gurrutxagatarren eta uriartetarren terrenoetan. Aldundiko ordezkariak iristear zirenean, zein iritsiko eta Aita Santuaren nuntzioa, Donostiatik bueltan; hari eta Aldundiko ordezkarietara harrera egin ondoren, guztiak uda-

letxera joan eta handik ikusi zituzten Goiko plazan egin ziren dantza ederrak. Gero, agintariak Maria eta Jose Kolegiora joan ziren, eskulanen erakusketa inauguratzera; handia izango zen, 1.500 objektu baino gehiago jarri baitziren erakusgai; Txomin Agirre apaiz eta idazlea ere han zen, harrera egiten. Gauean, salbe ederra izan zen San Pedro parrokiari; salbe hura 17 urteko gazte zumaiar batek idatzia zen, Jose Maria Beobidek. Eguna amaitzeko, musika bandak kontzertua eskaini zien agintariei.



Zumaiaiko portua 1900 inguruan. ZUMAIKO UDALA, MIGUEL ANGEL SAEZEK EMANA

Irailaren 23an, igandean, goizeko seietan txistulariek eta bandak diana jo zuten. Hamarretan, musika bandak lagunduta, Udaleko eta Aldundiko ordezkariak prozesio ikusgarria egin zuten: estandarte ugari eta jende asko alboetan, laguntzen, mikeleteek babestuta. Gero, meza nagusia Manuel Beobidek eman zuen. Antonio Trueba zumaiararren pieza bat abestu zuten, Donostiatik etorritako errefortzuekin indartutako orkestra eta guzti. Gero, Daniel Baertel fraide frantziskotarrak sermoia egin zuen, eta, amaitzeko, Clemente Ibaguren biolinistak Beethovenen erromantza bat jo zuen. Mezaren ondoren, musika bandaren emanaldia izan zen Goiko plazan, eta gero bazkaria. Arratsaldeko lauretan, agintariak berriz ere Goiko plazan ziren, eta oholtzan abeltzaintzako eta nekazaritzako sariak eman zituzten; baina eguneko ikuskizun nabarmenena probintziako diputatuen dantza izan omen zen: aureskua Santo Domingo diputatuak dantzatu zuen; atzeskua, berriz, Esteban Aranguren Zumaiako alkateak; nola dantza egin zuten ere jasota dago aldizkarian: “Con aire reposado y tranquilo, sin las piruetas y contorsiones que empiezan á introducirse y tanto deslucen el verdadero y original baile”; pixkanaka,

emakumezkoak ere sartu omen zituzten sokan, eta amaitzeko arin-arina dantzatu; atzetik, saioa bukatzeko, dantzaritxikiak. Haien ondoren, bertsolariak (Pello Errota, Olegario, Txintxua eta Urkia gaztea) izan ziren, eta haiek bukatutakoan, irrintzilariak; azken horietan nabarmenena Domingo Ikazeta, 79. urtekoa. Gauean, eguna ixteko, plaza argizatuta, su artifizialak eta musika izan ziren.

Irailaren 24an, astelehenean, 08:30ean saltakalariak izan ziren, Arranaitzera (Orroagaren hasierara) joan eta etorri, eta 09:00etan, berriz, saltokariak. 09:30ean, udaletxean, literatura eta musika lehiaketetako sariak eman zituzten; gero, euskarazko irakurraldien azterketa izan zen. Horren ondoren, agintariak udaletxetik kolegiara joan ziren, eta han haurrek euskaraz idazteko eta irakurtzeko ariketak egin zituzten: neska batek diskurtso bat irakurri zuen euskaraz, eta haren atzetik neska gehiagok euskarazko testuak irakurri zituzten, baita euskaraz ez zekiten batzuek ere; Tiburcio Beobideren eskola partikularreko mutilek ere euskaraz idazteko eta irakurtzeko ariketak egin zituzten. Gero, txistularien lehiaketa izan zen plazan eta Leandro Zabalak lortu zuen

lehen saria (urte batzuk geroago, bandaren zuzendari eta musika irakasle izan zen Zumaian), eta horien atzetik, aureskularien lehiaketa; zeinek irabaziko eta Pujana jaunak (dantza irakasleak), atzetik bi zumaiarrekin: Ascensio Linazasoro eta Jose Miguel Antia. Arratsaldean, erriean festa izan zen: kukañak, estropadak..., eta, ondorenean, dantzaritxikiak. Eguna amaitzeko, gauean su artifizialak erre zituzten, eta musika ere izan zuten.

Irailaren 25a, asteartea, euritsu esnatu zen, baina aizkolarien lehiaketa egin ahal izan zuten. Pilota partida, ordea, bertan behera geratu zen, eguraldiarengatik. Gero, arratsaldeko hiruretan gaiteroen eta dultzaineroen lehiaketa izan zen. Azkenik, eguna eta festak amaitzeko, musika izan zen.

Euskal-Erria aldizkariko testuan, eskerrak eman aurretik, azken ohar hau dakar: “No ha habido que lamentar el menor incidente desagradable, á pesar de la extraordinaria concurrencia que acudió por mar y por tierra y obligó á improvisar tiendas de campaña con mástiles, calabrotes y velas, dando singular aspecto y animación al cuadro que presentaba la risueña villa”.

Geratu zaiguna

Ehun eta hogeita bat urte pasatu zaizkigu ordutik. Zeinen desberdinak orduko Zumaia eta gaur egungoa, orduko zumaiairrak eta gaur egungoak, orduko jaiak eta gaur egungoak, baina, aldi berean, zer gutxi aldatu diren zenbait gauza... Erraza egingo zaigu orduko festa haien arrastoak gurean ezagutzea, eta ea aukera daukagun etorkizunean segida emateko, ehun urte barru ere jarrai dezaten. ■■■



Euskal Jaiak Zumaian, 1962an. ZUMAIAKO UDALA



RENOVALAN

Sansinenea industrialdea, B2 · Zestoa

943-44 30 01

gipuzkoa@renovalan.comwww.renovalan.com

- Birgaitze energetikoak
- Irisgarritasuna - Ilogailuak
- ITE konponketak
- Arriskuak kentzea
- Urbanizazioak
- Estalkiak
- Diru laguntzen kudeaketa



PUBLIZITATEA



SOLOZABAI
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINITZA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN

Izustami, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondeak (kodilloa)
Salxitzak, oilaskoak...
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 575 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com



**Ikasi euskara,
bidelagun onenarekin**

aek
euskara praktikoa

**Urola
Kostako AEK**

**Matrikula zabalik,
irailaren 4tik 22ra**

zarautz@aec.eus • 943 13 01 75
azkoitia@aec.eus • 943 15 10 89
zumaia@aec.eus • 943 86 02 48
orio@aec.eus • 670 420 025
zestoa@aec.eus • 670 420 048

DIRULAGUNTZAK

MARKETIN ESTRATEGIAK



- MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO PLANEN DISEINUA ETA GARAPENA.
- ONLINE ETA OFFLINE ESTRATEGIAREN PLANIFIKAZIOA ETA EXEKUZIOA.

GUKA  ZERBITZUAK

KULTURA

Gasolindegiko kronikak

ANTZERKIA

TESTUA ETA ARGAZKIA:

JUAN LUIS ROMATET

Sarritan kolaboratu dute elkarrekin Esti Curielek eta Goiz Eder Iturainek, herri mailan antolatutako jaialdietan edota kale ikuskizunetan. Horrekin nahikoa ez, eta bikoteak aurrerapauso bat eman du orain, Zutani Teatroa izeneko talde edo proiektua sortuta.

Petra eta Leo dira Curiel eta Iturain, gasolindegiko batean lan egiten duen bikotea. Eguneroko monotoniatik ihes egin nahiko dute, eta ezohiko bisitak, gutun sekretuak eta amesteko uneak nahastuko dira umore beltz eta absurdoaz blaitutako antzezlan honetan. “Gure asmoa zen gasolindegiko batean sortzen diren eguneroko kontuekin jolastea, baina pixka bat baztertu egin dugu. Badago egunerokotasun hori, badago asperdura hori, baita bi lagunak asperdura horretatik aterako dituen ezohiko gertakizun bat ere”, azaldu du Iturainek. “Gertakizun horrek oso desberdinak diren bi pertsonaia elkartuko ditu, eta amesteko zirrikitua zabalduko die”, gaineratu du Curielek.

Donostiako Poltsikoko Antzerkiaren Lehiaketa izan da Zutaniaren estreinako antzezlan honen abiapuntua. “Iazko udan, konfinamenduaren ondoren, zerbait egiteko elkartu ginen. Lehiaketa honetarako proiektuak aurkezteko aukera zegoen; udan elkartu ginen, eta irailean



Goiz Eder Iturain eta Esti Curiel, Zumaia gasolindegian.

bigarren saria eman zigutela jakin genuen”, kontatu du Curielek. “Hasieran, otsailean egitekoa zen jaialdia, baina pandemiarekin atzeratzen joan da, eta orain irailaren amaiera eta urriaren hasiera artean egingo da, Donostian”. Irailaren 25ean izango da lehen emanaldia, Intxaurrenondon, Sagastieder plazan. Urriaren hasieran beste hiru emanaldi ere izango dituzte Donostian.

Bien artean sortu duten lehen antzezlan “serioa” izango da *Bete ingoia*. “Zerbait egin behar genuen bakoitzean, bezperan biltzen ginen gidoi txiki bat prestatzeko. Oraingoa serioago hartu dugu; zerbait

profesionalagoa egitea da asmoa”, azaldu du Iturainek. Aizpea Goenaga eta Elena Irureta bezalako aktoreen aholkuak eta iritziak jaso dituzte. “Beraiek gidatu gaituzte amaierako testu honetara”.

Behin Donostian aurkeztuta, antzezlanaren beste herrietara mugitzea izango da hurrengo pausoa. “Poltsikoko Antzerkia abiapuntu hartuta, gure asmoa da espazio anitzetarako zerbait egitea, herri txikietara eta heldu ahal izateko”, gaineratu du Curielek. “Antzoki batean egitea ondo dago, eta egingo dugu, baina beste espazio horietara ere eramanez nahiko genuke gure lana”. ■

AGENDA

ERAKUSKETAK

IRAILAK 3-26

Ibai Maritxalar.


URRIAK 1-17

Garbiñe Arrieta eta Iñaki Oreja,
Mugimentua eta kemena.

IRAILA

4 LARUNBATA

Zumaia XIV. Sprint Triatloia.
15:30ean.



Kontzertua: Maren.
Sagarbideko patioan, 20:00etan.

9 OSTEAGUNA

Ate-irekiak: Gurasoentzat.
Gaztegunean, 17:00etan.

10, 11 ETA 12 ASTEBURUA

Irekiera: 2009an jaiotakoentzat.
Gaztegunean, 17:00etan.

11 LARUNBATA

Kale antzerkia: *Turistreatzen*, Trapu Zaharra
Odietan, 20:00etan.

12 IGANDEA

Dantza: TOPA Kukai Dantza.
Odietan, 19:30ean.

14 ASTEARTEA

Ohiko irekiera: nerabe guztientzat
(2005-2009 urteetan jaiotakoentzat).
Gaztegunean,
17:00etatik 20:00etara.

25 LARUNBATA

Kontzertua: Neomak.
Zumaianan, 20:00etan.

26 IGANDEA

Organo kontzertua: Flysch Organo zikloa: Pau Riuró, Castelló D'Ampurias Baselizako organista titularra.
Parrokian, 19:00etan.

29 ASTEAZKENA

Hitzaldia: XII. Zumaia Flysch Trail Kulturala, "Zaborrak itsasoan". Cristina Peña eta Oihane Cabezas.
19:00etan.

30 OSTEAGUNA

Hitzaldia: XII. Zumaia Flysch Trail Kulturala, "Zaborrak espazioan". Antonio Jimenez eta Roke Cepeda.
19:00etan.

URRIA

1 OSTIRALA

Hitzaldia: XII. Zumaia Flysch Trail Kulturala, "Zaborrak mendian". Sebastián Alvaro, Juanjo San Sebastián, Juanito Oiarzabal, Josu Bereziartua eta Amaia Aranzabal.
Zumaianan, 19:00etan.

Antzerkia: Txalo konpainiaren *LOSERS*.
Aita Marin, 19:00etan.



yoana ✂
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla *tailor*

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

Zer ote da ama ona izatea?



Odolekoak

Egilea: Antxiñe Mendizabal

Argitaratzailea: Elkar

Argitaratze urtea: 2020

Orrialdeak: 314

Generoa: Eleberria



TESTUA: ANTON PEÑALBA

Zeresana eman du Antxiñe Mendizabalen estreinako nobelak, *Odolekoak*, iazko liburu esanguratsuenen artean bere lekua hartzeraino. Matilde Echeluze, Iruñeko familia karlista bateko alaba, eta Segundo Vilagude, emigrante galiziar batzuen semea, 1941ean Nafarroako hiriburuan ezkondu zireneko kronikak zabaltzen du nobela. Urte hartan hasi eta 2005era arte Echeluze familiaren bilakaerari eta ibilerei jarraitzen die, Matilde, Teresa eta Amaia belaunaldi banatako emakumeak lehen planoan jarri eta gertakari historikoak atzeko oihal gisa erabiliz. Eleberri historikoaren eta familia sagaren arteko lana da, beraz.

Emakumezko pertsonaiek daramate tramaren zama gutzia, izan echelucetarren familiakoak (Matilde, Teresa, Amaia), izan haien zerbitzari edo inguruko familietakoak (Luisa, Victoria, Nieves). Beren ideal eta nahiei uko egiten dieten emakumeak dira.

Batetik, nobelan, Mendizabalek ama eta emazte

onaren rol behartuari begiratzen dio ikuspuntu desberdinetatik, amatasuna deserosotasunez eta arranguraz bizi izan zuten emakumeen begietatik. Hiru protagonista nagusiak beste aukerarik gabe, kontzientzia handirik gabe, ama bihurtu dira gizonen neurrira egindako munduan. Matriuskak bezalakoak dira: bakoitza aurrekoaren, bere amaren, barruan harrapatuta dago, bere amaren ereduan bahituta. Eta beren amen eredu hori hil egin behar dute, suntsitu, nahi duten ama izateko.

Matilde indarkeriaren eredua da: indarkeria sufritzen du eta indarkeria hori ezartzen die bere buruari eta gainerakoei. Teresa kontzientziarena: Teresak oinordetzan maitasun eza jasoko du, baina

**DIRDIRA GEHIEN DUTEN
UNEAK AMA-ALABEN
ARTEKO HARREMANARI
DAGOZKIONAK
IZANGO DIRA**

ahaleginduko da gertatutakoaren kontzientzia hartzen, zauriak sendatzen eta bakea egiten iraganarekin, bere alaba Amaia maitasunaren eredua izan dadin. Hala, dirdira gehien duten uneak ama-alaben arteko harremanari dagozkionak izango dira.

Baina bada, ama-alaben arteko harreman horretan, beste osagai bat ere. Denok gara gure memoriaren seme edo alaba. Beraz *Odolekoak* nobelan pertsonaien gorabeherekin batera Euskal Herriaren eta bereziki Iruñearen 60 urteko historiaren kronika soziala aurkituko dugu. Karlismoak, gerra garaiko bonbardaketek, gerra ondorengo errepresioak, Ezkabako kartzelak, zentsurak, euskararen izaerak familia karlista batean, Felipe Uhartearen bahiketak, intsumisioak, antisorgailuak, lehenengo abortuek, Iruñean jarritako lehenengo ikurrinak eta egunero hirian eta hiritarren artean izandako beste hainbat eta hainbat detailek egiazkotasuna emango diote errelatoari. ■

Tabernak 5:00ak arte irekita!



EIRE SALEGI

Horrekin gazteenen arreta lortuta, testu labur hau bukaerara arte irakurtzea eskatu nahiko nizueke. Asko zarete irailean etapa berri bat hasiko duzuenak, unibertsitatean zein beste ikasketaren batean. Azken urtea ez da batere erraza izan, etxetik ikasi behar, lagunekin elkartzeko arazoak... pandemia dela medio. Hori gutxi balitz, irakasle zein gurasoen presiopean, zer ikasi erabaki behar. Dena den, ez da askozaz samurragoa aurretik duzuenak.

Eta berriaren hasierak, aldaketa asko dakartza berekin batera. Batzuek betiko etxea eta herria utziko dituzue hiribururen batera joateko; beste batzuek, aldiz, ez duzue kabia utziko, baina lehen eskolara joateko zenituzten hamar minutuak autobuseko bidaia luze bilakatuko dira. Aldaketa horiek izango dira kurtsoa hasi aurreko egunetan urduritasunak eta ziurgabetasunak eragingo dizkizuenak. Ondorio gisa askok zalantzan jarriko duzue ikasten ari zaretena benetan gustatzen zaizuen, ea erabaki garrantzitsu hori zentzuz hartu zenuten. Hainbat kasutan aldaketa handi geratzearen erruz etor daiteke pentsamendu hori, ikasketekin zerikusirik izan gabe. Aitzitik, beste asko ez dira oker egongo eta hor dago koska. Ez da erraza onartzea gaizki erabaki duzula, ez dakizula zer den benetan gustatzen zaizuna. Huts egitearen sentrazio hori. Baina ez ahaztu ez dela atzerapauso bat, ez duzuela urte bat galtzen, ikasketaren parte dela baizik.

Inork ez digu behar bezala azaltzen nola izango den unibertsitatea, niri ez behintzat. Salto nabarmen bat dago institututik gradu ikasketetara. Kasu askotan, irakasleak beren azalpenak eman eta alde egingo du, eta horrek autonomia handiagoa exijituko dizuete. Institutuan purea ahoko zulora ematen ziguten, nire amonak esango lukeen modura. Denak ez zarete berdin egokituko, eta batzuei lehen baino gehiago kostako zaizue. Baina autonomia horrek bakoitza bere erritmora ibiltzea ahalbidetzen du. Ez dago zertan ikasgai guztiak gaingitu, gradua ikasgai ikasgai aterako duzue eta tamaina hartzean dago gakoa.

Baina azken finean, ikasketak bigarren planoan geratzen dira unibertsitate garaian, ez al da hala? Ziurrenik ez zara lehenengo egunean gela aurkitu ezinik dabilen bakarra izango eta lehenengo taldetxoa hor osatuko duzue. Eguna joan eguna etorri batera, elkarrez dena jakin arte. Konturatzerako ama baino gehiago ikusiko dituzue. Kuadrillakoak ez dituzue lehen bezainbeste ikusiko, bakoitzak bere galdutakoen taldetxoa egingo baitu. Baina beti egongo dira hor, itzultzen zaretenerako.

Espero dut nerbio eta ezjakintasunei argi pixka bat eman izana. Urte ederra daukazue aurretik, eta etorriko direnak. Ea Bilboko kaleetan ikusten garen. Ilusioz hasi etapa berri hau, disfrutatu! ■■■

**DENAK EZ ZARETE
BERDIN EGOKITUKO,
ETA BATZUOI LEHEN
BAINO GEHIAGO
KOSTAKO ZAIZUE**

Bizarra



JUAN LUIS ROMATET

Gizakiok gero eta ile gutxiago dugula diote adituek: tximutik homo sapiensera, Neanderthaletik Cromagnoneko gizakira, eboluzioan aurrera joan garen heinean ilea galdu dugu, beharrik ere ez dugulako. Nire kasuan bi aukera daude: oso eboluzionatua nago –ez, inolaz ere ez–, edo oraindik amebatik ez naiz pasa ere egin –posibleago–, oso ile gutxiko pertsona naiz eta.

Bai, buru gainean ile asko dut, zuritzen doana, baina ugaria... oraindik, behintzat. Horrek ile gutxikoei adarra jotzeko aukera ematen dit. “Bai, bai, nahi duzuna, baina burusoil bat zara!”. Umekeria? Noski, baina halakoak ere behar dira noizbait. Kontua da buru gaineko ileen Amazonas sudur azpiko Gobiko desertua bihurtzen dela; ez zait bizarrik apenas ateratzen, tamalez eta zorionez. Tamalez, nik ere noizbait moderno itxuraz jantzi nahi izan nuelako; bizarra hazten saiatzen nintzen, erregutu eta dena egiten nuen, baina ateratzen zitzaizkidan lau ileak, gorriak gainera, bizarretik urrutik zeuden. Zorionez diot, baita ere, ez dudalako asko arduratu behar bizarra mozteaz. Biboteak goiko ezpainaren muga zeharkatzen duenean dakit bizarra mozteko ordua heldu dela. Lehen, horretarako, makinilla elektrikoa erabiltzen nuen, baina inboluzio batean aitzurretarara pasa nintzen; ez, ordea, Eroskin aurki daitezkeen Gillette horietara; ez, itxuroso bat erosi nuen, auskalo zenbat bizar-orriekin. Itxurosoa bai, baina, nire kasuan, ez dago bizar mozketarik ebakirik gabe.

Arazoak betaurreko progresiboak jarri dizkidatenetik areagotu dira. Adinagatik, edo auskalo zer arrazoiengatik, ikusmena galdu dut, eta mota horretako betaurreko batzuk erosi behar izan ditut. Lehen urrutira ederkir ikusten nuen –hurrera ez–, eta agurtu nahi ez nuen norbait urrutian ikusten banuen, denbora izaten nuen kalea gurutzatzeko; orain muturren aurrean aurkitzen dut, eta hor hasi behar irribarre faltsuekin-eta.

Betaurreko berriak erosi ditudan une honetan bertan biboteak goiko ezpainaren espazioa inbaditu du. Hor hasi da abentura! Xaboa jarri, aitzurra hartu... eta betaurreko berriekin ikusmena enfokatzeko buruhaustea. Lentearen goiko partetik begiratu, eta dena lauso. Behetik begiratu... eta zas!, lehen ebakia. Aldamenetik hobeto ikusiko ote da? zas!, bigarrena, eta hirugarrena handik pixka batera. Dedio! Honek Tarantinoren filma bat dirudi. Nola demontre enfokatzen ote de antiojo hauekin?

Azkenean, hala nola, lortu dut bizarraren eta bibotearen gehiena kentzea; dena ez, ebakiek aitzurra hortik pasatzea galarazi didate eta. Zorionez, hemendik aste batzuetara arte ez dut buruhauste hau berriro izango. ■■■

**BURU GAINEN ILEEN
AMAZONAS SUDUR
AZPIKO GOBIKO
DESERTUA
BIHURTZEN DA**

Zatoz guztion sarera

ZOZ zuntz optikoko herri sarea
Zumaiaiko herrigune osora iritsi da.
Jarri harremanetan operadoreekin
eta eskatu informazioa.

 labur.eus/ZOZ

 zoz@guifi.net

 656 511 916

fundació
guifi·net

 ZUNTZ
OPTIKOA
ZUMAIA

Zumaiaiko
Udala




 ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

ZUMAIA TXARTELA

*Gertu bizi,
Gertu erosi!!*

Ordaindu txartelarekin eta lortu itsasontzi-ibilaldia egiteko sarrerak.
Paga con la tarjeta y consigue una visita guiada en barco.

Irailaren 6tik 26era / Del 6 al 26 de septiembre





Galdona

Denda:

Mendaro marinela, 1

943-14 33 46

Biltegia:

Jose Mari Korta industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

943-86 11 17



Industriarako nahiz **etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak**



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net